

IPUIN-SARIKETA

(BILBOA'KO UDALAREN BABESPEAN

IDAZKETAINDARTZEN

EUSKERAZALEAK urtero eratzen dogun ipuin-sariketa eta aurten be idazkin onegaz zabaltzen dogu sariketarako deia.

Elburu bi eta biak alkarragaz zer-ikusia daukenak, izaten doguz dei au zabaltzen doguean.

Lenengo elburua idazterako zaletasuna sortzea. Gure lenagoko euskaldunak, egunerik egunera eriotzeak daroazkuzan euskaldunak, idatzi egiten eben, ainbatek aldizkari onetan be, baiña bizitzearen legeak eskatzen dauan lez, joan egiten jakuz eta euren lan-lekuak beteteko idazle barriak bear doguz. Orregaitik zabaltzen dogu dei au.

Eta bigarren elburua irakurleak ugaritzea da. Au gitxiago agertzen da baiña ba-dakigu irakurleentzat idazmotarik atseginenatarikoa dirala ipuiñak, batez be euskera erreza daukenak eta ipuiñaren barruan ardurabi-dea edo (suspense) daukenak.

IPUIÑETARA ZALETASUNA

Bear ba'da gure adimenari dagokiona eta lurralde guztietakoa izango da ipuin-zaletasuna, baiña Euskalerrian beintzat, bal umeen artean eta ez gitxiago nagusien artean, ipuiñetarako zaletasun aundia agertzen da.

Ipuiñak mota askotakoak izan daitekez eta gauza egokia litzake gure Errian zeintzuk izaten diran atsegin-garrien jakitea. Bear ba'da zabalen dabiltenak, eta atsegin-garrien diralako izan leiteke ori, mitoloji-girokoak dira, baiña ez beti edestu diran ipuiñak, bardin-bardin, ori gogaikarri gertatzea ba-leiteke, oiñean mitolojia dala asmakizun barriak diranak baiño. Onetan eredu lez igazko sariketan nagusi urten zana jarri geinke: Aitor eta bere semeak oiñarri lez artuta, zazpi eskualdeai buruz gauza gogoangarriak esaten dauz gure Iñaki Goikoetxea'k.

GURE SARIKETAK

Sariketarako deiak ondoren ona lortu dau, egia esan ontasunean ondoren ohea ugaritasunean baiño.

Urtero egiten dogun dei oneri erantzuten jarraituko al dabe gure irakurleak. Beti izaten dira idazle barriren batzuk eta aurten be barriren bat etorriko dala uste dogu.

Batzutan barriak lenengo saria lortzen ez dabenean, biozkatu egiten dira eta tamalgarria da ori. Iraupena bear da. Saria irabazten dabena, ostera, sarritan geiago ez dira agertzen. Idazten jarraitu bear leukeela uste dogu. Gure aldizkariak pozik artuko dauz euren lanak eta euskerea indartzen lan ederra egingo dabe. Kendu ba nagikeria eta idatzi.

GAMIZ'ek

IPUIN-SARIKETA

(BILBOA'KO UDALAREN BABESPEAN

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurten be, ipuin-sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

— Ipuiñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.

— Ipuiñak asmaurikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

— Luzeerea iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabena ZER'en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabena be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

— Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbo'ko Colon de Larrea-tegi 14.2. ' eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta ZER'en agertuko da, Urterrillean, baita DEIA Egunkarian be albait lasterren.

— Sariak lau izango dira:

- 1.ª 40.000 pezeta
- 2.ª 30.000 pezeta
- 3.ª 20.000 pezeta
- 4.ª 10.000 pezeta

— Ipuiñak izen-ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

EUSKERAZALEAK